



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, URRETXUKO UDALAREN 2003-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Urretxuko Udalaren 2003ko urtealdiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzeari dagokionez, salbuespen batzuk egin dituela.

Langileriari dagokionez, HKEEk azaleratu du Lanpostuen Zerrendak ARCEPAFERi dagozkion ordainsari mailak barne hartzen dituela, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak eskatutako sailkapena aplikatu beharrean, nahiz horrek ez duen eraginik udal funtzionarioek eskuratu beharreko zenbatekoetan. Halaber adierazten da 2003ko maiatzera arte ez zaiela atxikipenik egin zinegotziek jasotako kalteordainei. Gertatu den aldaketa zinegotziek kalteordainak jasotzeki utzi izanaren ondorio da, horien onuradun udal ordezkariak duten talde politikoak izanik, hauek atxikipenetik salbuetsita daudela.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, salbuespenak dituen beste atal bat HKEEk aztertutako zenbait espedientetan administrazio kontratazioak osatzen duena da.

Salbuespen hauek zenbait kontratu esleitzean publizitate eta lehia eza dira (Ipeñarrieta kalean eta Eguzkia Plazan lanak, Iparragirre kalean konponketak, hainbat kaletan argiak jartzeko hornidura...). Kanpoaldeko igerilekuak kudeatzeko kontratuaren luzapena ere zalantzan jarri da, hasierako kontratua bideratzeko administrazio klausuletan aurreikusi gabe baitzegoen. Fiskalizazio txostenak jaso duen beste salbuespenetako bat Mugitegi Poligonoan lursail baten salmentari dagokio, legez eskagarria den enkantea bideratu gabe; gainera, Alkateak onetsi zuen, horretarako eskumena zuen atala Udalbatza zelarik.

Beste salbuespen batzuk Alkateak onetsitako aurrekontuaren aldaketei dagozkie, 418.000 euroko kreditu transferentziak, Udalbatzak bideratu behar zituzkeenean.

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin zaizkien.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Finantzaren egoera osasuntsua da eta Udalak zorpetze maila baxua duenez eta diruzaintza gerakina positiboa, egungo inbertsio zifrak mantentzeko behar hainbateko gaitasuna duela adierazi da.